Hitzarmena egiteko, kontuan hartu da Bizkaiko Foru Aldundiaren, haren erakunde autonomoen eta foru-sektore publikoaren jarduera-eremuan hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak ezartzen dituen maiatzaren 28ko 63/2019 Foru Dekretuan xedatutakoa.

SEXTO

En la elaboración del convenio se ha tenido en cuenta lo dispuesto en el Decreto Foral 63/2019, de 28 de mayo, por el que se establecen los criterios de uso de las lenguas oficiales en el ámbito de actuación de la Diputación Foral de Bizkaia, de sus organismos autónomos y del sector público foral.

ZAZPIGARRENA

Nahitaezkoa da hitzarmen honen eremua eta horretan gauzatu behar diren alderdiak zehaztea. Hori dela eta, Dirulaguntzei buruzko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauko 20.2.a) artikuluan xedatu denez, zuzenean eman daitezke Bizkaiko Lurralde Historikoko Aurrekontu Orokorretan ezarritako izendun dirulaguntzak, hitzarmenetan eta dirulaguntza horien araudian ezarritakoaren arabera. 26.1. artikuluan, berriz, hitzarmen horiek dirulaguntzak bideratzeko ohiko tresnak izango direla xedatu da.

Beste alde batetik, martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren bidez onetsitako 5/2005 Foru Araua garatzeko Dirulaguntzen Arautegiaren 50.3 artikuluan ezarri da kasu hauetan dirulaguntza emateko egintza edo hitzarmena oinarri araupetzailetzat hartuko dela Dirulaguntzei buruzko Foru Arauan xedatutakoaren ondoreetarako, eta egintzaren edo hitzarmenaren gutxieneko edukia zehaztu du.

Horrenbestez, aipatutako xedapenetan ezarritakoarekin bat etorriz, bi aldeek adostu dute hitzarmen hau sinatzea. Hona hemen hitzarmen hau sinatzea. Hona hemen hitzarmena arautuko duten

SÉPTIMO

Es preciso determinar el ámbito de este convenio y los aspectos que en el mismo se han de materializar, ya que la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral dispone en su artículo 20.2 a) que podrán concederse de forma directa las subvenciones previstas nominativamente en los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Bizkaia, en los términos recogidos en los convenios y en la normativa reguladora de estas subvenciones, y en el artículo 26.1 establece que los convenios serán el instrumento habitual para canalizar estas subvenciones.

Por su parte, el Reglamento de Subvenciones de desarrollo de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, aprobado por Decreto Foral 34/2010, de 23 de marzo, en su artículo 50.3 prevé que en estos supuestos el acto de concesión o el convenio tendrá el carácter de bases reguladoras de la concesión a los efectos de lo dispuesto en la Norma Foral de Subvenciones, y determina su contenido mínimo.

Así pues, de conformidad con lo establecido en las citadas disposiciones, ambas partes acuerdan suscribir el presente convenio, el cual se regirá por las siguientes

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 9MRU-OR2F-TTX3-YY8Y
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

KLAUSULAK

## Lehenengoa.-Hitzarmenaren xedea eta subjektu bakoitzak egin beharreko jarduketak

1. Hitzarmen honen xedea da, halaber, Ekintzailetza Ikerketa eta Garapenerako Elkarteari (EIGE), IFZ G-95895272, zuzeneko dirulaguntza izendun bat emateari lotutako baldintzak eta konpromisoak ezartzea, "Ekintzailetzaren Behatokia" proiektua garatzeko 2024an.

2. Ekintzailetzaren Euskal Behatokiak (EBB/OVE) egiten duen monitorizazioak ekintzailetza-fenomenoari eta ekintzailetzaren euskal ekosistemari buruzko informazio zehatza ematen du. EAEko eta Bizkaiko jarduera ekintzailea nazioartean neurtzeaz gain, ekintzaile berrien profila aztertzen du, generoari buruzko azterlan espezifikoak eta sortutako enpresen ezaugarriak barne. Gainera, Behatokia lanean ari da, halaber, forma juridikoari, enpresa berrien digitalizazio-mailari eta migratzaileek gidatutako ekintzailetzari buruzko adierazleekin..

3. Jarduera nagusia gauzatzean, Euskal Ekintzailetzaren Behatokiak (EEB/OVE) hainbat landa-lan egingo ditu, hala nola elkarrizketak eta galdetegiak, datu-baseak sortuko ditu, eta datuen tratamendua eta analisi- eta ikerketa-lanak egingo ditu. Halaber, lortutako ikerketa-emaitzak barreiatuko, zabalduko eta transferituko ditu.

4. Beraz, Ekintzailetzaren Ikerketa eta Garapenerako (EIGE) elkarteari xede eta helburuek bat egiten dute Bizkaiko Foru Aldundiko Ekonomia Sustatzeko Sailaren helburuekin jarduera ekintzailea sustatzeko, Bizkaian jarduera ekonomikoa eta kalitatezko enplegua sortzeko mekanismo gisa.

CLÁUSULAS

## Primera. Objeto del convenio y actuaciones a realizar por cada sujeto

1. Este convenio tiene como finalidad establecer las condiciones y compromisos asociados a la concesión de una subvención directa nominativa a la Asociación de Investigación y Desarrollo de Emprendimiento, AIDE, con NIF G-95895272, para desarrollar el proyecto “Observatorio emprendimiento” en 2024.

2. La monitorización que realiza el Observatorio Vasco del Emprendimiento (EBB/OVE) ofrece información detallada sobre el fenómeno emprendedor y el ecosistema vasco de emprendimiento. Además de medir la actividad emprendedora de la CAPV y de Bizkaia en el ámbito internacional, analiza el perfil de las nuevas personas emprendedoras, incluyendo estudios específicos de género, y las características de las empresas creadas. Además, el Observatorio ya trabaja también con indicadores relativos a la forma jurídica, nivel de digitalización de las nuevas empresas y emprendimiento liderado por personas migrantes.

3. En ejecución de su actividad principal el Observatorio Vasco del Emprendimiento (EBB/OVE) realizará distintos trabajos de campo como entrevistas y cuestionarios, generará bases de datos y hará tratamiento de los datos y trabajos de análisis e investigación. Así mismo realizará la diseminación, difusión y transferencia de los resultados de investigación obtenidos.

4. Existe, por tanto, una coincidencia de objetivos y fines entre la Asociación de Investigación y Desarrollo de Emprendimiento, AIDE, y el Departamento de Promoción Económica de la Diputación Foral de Bizkaia en promover la actividad emprendedora como mecanismo de generación de actividad

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 9MRU-OR2F-TTX3-YY8Y
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Horregatik, bidezkoa da dirulaguntza zuzen izendun bat ematea, 2024. ekitaldian, Ekintzailetzaren Ikerketa eta Garapenerako (EIGE) Elkarteari "Ekintzailetzaren behatokia» proiektua garatu dezan." Azaldutako guztiak egiaztatzen du proiektu honek interes publikoa, soziala eta ekonomikoa duela, Bizkaiarako onura handia dakarrela, eta justifikatzen du dirulaguntza bat zuzenean ematea eta deialdi publiko bat ez erabiltzea planteatzen diren helburuak lortzeko.

económica y empleo de calidad en Bizkaia por lo que procede otorgar una subvención directa nominativa a la Asociación de Investigación y Desarrollo de Emprendimiento, AIDE, para el desarrollo del proyecto "Observatorio emprendimiento" en 2024. Todo lo expuesto acredita el interés público, social y económico de este proyecto que comporta un importante beneficio para Bizkaia y justifica la concesión de manera directa de una subvención y la no utilización de una convocatoria pública para conseguir los objetivos que se plantean.

5.- Dirulaguntza honen xedea ez da sexuagatiko edo Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzetarako Legearen Testu Bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuan jasotako diskriminazio anizkoitzeko faktoreengatiko diskriminazioa eragiten duen jarduera..

5. El objeto de esta subvención no constituye actividad que sea discriminatoria por razón de sexo o por aquellos factores de discriminación múltiple contemplados en el Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la igualdad de mujeres y hombres y vidas libres de violencia machista contra las mujeres.

6. Dirulaguntza honen xedea ez da tratu-berdintasunerako eta diskriminaziorik ezerako uztailaren 12ko 15/2022 Lege Integralaren IV. tituluan arau-haustetzat jotako jardunbideei aurre egiten dien, eragiten dien edo horiek onartzen dituen jarduera edo helburua betetzea.

6. El objeto de esta subvención no constituye actividad o cumplimiento de finalidad que atente, aliente o tolere prácticas calificadas como infracciones en el Título IV de la Ley 15/2022, de 12 de julio, integral para la igualdad de trato y no discriminación.

## Bigarrena.- Erakunde onuraduna

1. Laguntzaren erakunde onuraduna Ekintzailetzaren Ikerketa eta Garapenerako, EIGE, elkartea da.(IFZ.: G95895272).

2. Erakunde onuradunak egunean ditu zerga-betebeharrak, Gizarte Segurantzarekikoak eta dirulaguntzak itzultzekoak.

3. Ekintzailetzaren Ikerketa eta Garapenerako, EIGE, elkartea ez dago Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 12. artikuluan ezarritako ezein egoeratan, eta foru-arau

## Segunda.- Entidad beneficiaria

1. La entidad beneficiaria de la ayuda es la Asociación de Investigación y Desarrollo de Emprendimiento, AIDE, con NIF G95895272.

2. La entidad beneficiaria se encuentra al corriente de sus obligaciones tributarias, frente a la Seguridad Social y por reintegro de subvenciones.

3. La Asociación de Investigación y Desarrollo de Emprendimiento, AIDE no se encuentra incursa en ninguna de las circunstancias establecidas en el artículo 12 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen general de las subvenciones otorgadas

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 9MRU-OR2F-TTX3-YY8Y
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

horren 13. artikuluan ezarritako betebehar guztiak betetzera behartuta dago.

4. Dirulaguntzaren erakunde onuradunak ez du Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauaren 42. artikuluan aurreikusitako debekuen eraginpean, ez dago Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta indarkeria matxistarik gabeko bizitzetarako Legearen Testu Bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 23.2 artikuluan aurreikusitako egoerarik, eta dirulaguntza honen xedea ez da sexuaren ziozko bereizkeria dakarren jarduera edo ekintza bat.

5. Onuraduna ez da administrazioaren ebazpen irmo bidez zigortuta izan Tratu berdintasunaren eta diskriminazio ezaren uztailaren 12ko 15/2002 Lege Integralaren IV. tituluan aurreikusitako termino eta epeetan oso larri gisa kalifikatutako arau-hausteengatik.

6. Hitzarmen hau sinatzeak esan nahi du onuradunak baimena ematen duela Bizkaiko Foru Aldundiak zuzenean egiazta dezan onuradunak betetzen dituela xedapen indardunek ezarritako zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, eta elkarreragingarritasunaren bidez lor daitezkeen gainerako datuak.

## Hirugarrena.- Hitzarmenaren indarraldia

1. Hitzarmen hau formalizatzen den unean jarriko da indarrean, eta hitzarmenaren ondoriozko betebeharrak betetzen direla egiaztatu arte luzatuko da haren indarraldia; formalizatzen denetik lau urteko epean aurreikusten da hori.

por la Administración Foral y está sujeta al cumplimiento de la totalidad de las obligaciones establecidas en el artículo 13 de la citada Norma Foral.

4. La entidad beneficiaria de la subvención no está incursa en ninguna de las prohibiciones para concurrir previstas en el artículo 42 de la Norma Foral 4/2018, de 20 de junio para la igualdad de mujeres y hombres, no concurre ninguna de las circunstancias previstas en el artículo 23.2 del Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la igualdad de mujeres y hombres y vidas libres de violencia machista contra las mujeres, ni el objeto de esta subvención constituye una actividad o acción discriminatoria por razón de sexo.

5. La entidad beneficiaria no ha sido sancionada por resolución administrativa firme por alguna de las infracciones calificadas como muy graves, en los términos y plazos previstos en el Título IV de la Ley 15/2022, de 12 de julio, integral para la igualdad de trato y la no discriminación.

6. La firma del presente convenio conlleva la autorización de la entidad beneficiaria para la comprobación de manera directa por parte de la Diputación Foral de Bizkaia del cumplimiento de las obligaciones tributarias y con la Seguridad Social y el resto de los datos que puedan ser obtenidos mediante interoperabilidad.

## Tercera.- Plazo de vigencia del convenio

1. Este convenio entrará en vigor en el momento de su formalización y su vigencia se extenderá hasta la verificación del cumplimiento de las obligaciones derivadas del mismo que se estima en un plazo de cuatro años desde su formalización.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 9MRU-OR2F-TTX3-YY8Y
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

2. Hitzarmen honetan jasotako jarduerak gauzatzeko epea, atzeraeraginezko ondorioekin, 2024ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra artekoa izango da.

2. El plazo para la ejecución de las actividades previstas en este convenio se fija, con carácter retroactivo, desde el 1 de enero hasta el 31 de diciembre de 2024.

3. Dirulaguntzaren aplikazioaren justifikazioa aurkezteko epea 2025eko ekainaren 30ean amaituko da. Justifikazioa Ekonomia Sustapen Sailaren bulego birtualaren bidez aurkeztuko da, hitzarmen honen seigarren klausulan ezarritako baldintzetan, eta hitzarmen honen ondorioz erakunde onuradunari ezarritako betebeharrei buruz araudi espezifikoak ezartzen duena alde batera utzi gabe.

3. El plazo para presentar la justificación de la aplicación de la subvención finalizará el 30 de junio de 2025. La justificación se presentará a través de la oficina virtual del Departamento de Promoción Económica, en los términos establecidos en la cláusula sexta de este convenio y sin perjuicio de lo que establezca la normativa específica en relación a las obligaciones impuestas a la entidad beneficiaria como consecuencia de este convenio.

Laugarrena.- Alderdietako bakoitzak bere gain hartutako betebehar eta konpromiso ekonomikoak

Cuarta.- Obligaciones y compromisos económicos de las partes

1. Dirulaguntzaren zenbatekoa hogeita hamabost mila eurokoa (35.000 € ) da, hau da, baimendutako aurrekontu kredituaren guztizko zenbatekoa. Aipatu kreditua honako aurrekontu-partidaren kargura da: 0803.426106.45100, 2018/0025 zenbakiko proiektua: "Ekintzailetzaren behatokia" 2024.ekitaldiko aurrekontukoa.

1. La cuantía de la subvención asciende a treinta y cinco mil euros (35.000 €), que es el importe total del crédito presupuestario autorizado. Dicho crédito está designado con cargo a la partida presupuestaria 0803.426106.451.00, proyecto presupuestario 2018/0025 "Observatorio emprendimiento" del presupuesto del ejercicio 2024.

2. Zenbateko hau Bizkaiko Foru Aldundiaren Ekonomia Sustatzeko Sailaren gehienezko ekarpena izango da, eta garatu beharreko jardueretarako aurreikusitako zenbatekoaren jardunetan egon daiteken gehikuntzak inoiz ez du eragingo emandako zenbatekoa gehitzea.

2. Esta cantidad tendrá el carácter de aportación máxima por parte del Departamento de Promoción Económica de la Diputación Foral de Bizkaia, sin que en ningún caso el posible aumento del importe previsto de las acciones a desarrollar implique aumento de la aportación concedida.

3. Hitzarmen hau sinatutakoan ordainduko da dirulaguntza. Ordainketa aurreratua izan arren, uste da ez dela beharrezkoa bermea eratzea; izan ere, elkarte horren kide nagusiak hiru euskal unibertsitateetatik datoz, eta haren ibilbide profesionalak eta esperientziak bermatzen dute diruz lagundutako proiektua behar bezala gauzatuko dela. Era berean, elkarteak aurreko urteetan jarduera

3. El pago de la subvención se realizará a la firma del presente convenio. A pesar de tratarse de un pago anticipado, se estima que no es necesaria la constitución de garantía ya que se trata de una asociación cuyos principales miembros proceden de las tres universidades vascas y cuya trayectoria profesional y experiencia garantiza la correcta realización del proyecto subvencionado. Asimismo, la

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 9MRU-OR2F-TTX3-YY8Y
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

horretarako emandako diru-laguntzak justifikatu ditu.

4.Diruz lagundu daitezkeen gastutzat hartuko dira 2024ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean egindakoak, baldin eta diruz lagundutako jardueraren izaerari zalantzarik gabe erantzuten badiote eta jarduera egiteko behar-beharrezkoak badira. Dena den, behar bezala justifikatuta egon behar dira, indarrean dagoen araudiarekin bat, eta hitzarmen honetan ezarritako justifikazio-aldia amaitzen den egunean ordainduta, hau da 2025eko ekainaren 30a.

5. Honakoak izango dira diruz lagun daitekeen gastuak:

a) jardueraren xedeari zuzenean lotutako kanpoko zerbitzuak

b) diruz lagundutako jarduerari beren - beregi lotutako beste gastu batzuk, behar bezala frogatzen badira.

6. BEZagatik dirulaguntza emango da erakunde onuradunak egiaztatzen badu ezin dezakeela berreskuratu edo konpentsaziorik jaso.

7. Ez dira diruz laguntzeko moduko gastuak izango, inola ere, ondoko hauek:

a) Zeharkako zergak baldin eta horiek berreskuratzeko edo konpentsatzeko modukoak badira, eta ezta errentaren gaineko zerga pertsonalak ere.

b) Bankuetako kontuetako interes zordunak.

c) Administrazio eta zigor arloko interesak, errekarguak eta zehapenak.

d) Epaitegietako prozeduretako gastuak.

asociación ha justificado las subvenciones concedidas en años anteriores para esta actividad.

4. Se considerarán gastos subvencionables los realizados desde el 1 de enero al 31 de diciembre de 2024 que respondan de manera indubitada a la naturaleza de la actividad subvencionada y resulten estrictamente necesarios para su realización. En todo caso, deberán estar correctamente justificados de conformidad con la normativa en vigor y pagados a la fecha de finalización del periodo de justificación establecido en este convenio, esto es, 30 de junio de 2025.

5. Se considerarán gastos subvencionables los siguientes costes:

a) servicios externos directamente vinculados al objeto de la actividad.

b) otros gastos debidamente justificados directamente ligados al desarrollo de la actividad subvencionada.

6. El IVA será subvencionable cuando la entidad beneficiaria lo abone efectivamente y acredite no ser susceptible de recuperación o compensación.

7. En ningún caso serán gastos subvencionables:

a) Los impuestos indirectos cuando sean susceptibles de recuperación o compensación ni los impuestos personales sobre la renta.

b) Los intereses deudores de las cuentas bancarias.

c) Intereses, recargos y sanciones administrativas y penales.

d) Los gastos de procedimientos judiciales.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 9MRU-OR2F-TTX3-YY8Y
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

8. Dirulaguntza jaso dezakeen gastuaren zenbatekoa handiagoa bada sektore publikoko kontratuen arloan kontratu txikietarako indarrean dagoen araudian ezarritako zenbatekoak baino, erakunde onuradunak hiru enpresa hornitzaileren eskaintzak eskatu beharko ditu gutxienez, zerbitzua egiteko edo ondasuna emateko konpromisoa hartu baino lehen. Hori ez da beharrezkoa izango baldin eta, dirulaguntza jaso dezaketen gastuen ezaugarri bereziengatik, merkatuan ondasun eta zerbitzuok hornitu edo egiten dituen hainbeste entitaterik ez badago, edo gastua dirulaguntza eskatu baino lehen egin bada. Alderdi hori behar bezala azaldu behar da justifikazioan.

9. Aurkezten diren eskaintzak justifikazioan jaso behar dira haien arteko hautapenerako irizpideak eraginkortasuna eta ekonomia izango dira. Eskaintza ekonomiko hoberena hautatzen ez bada, arrazoiak azaldu behar dira txosten batean.

10. Diruz lagun daitekeen gastuaren balorazioa euroa ez den beste txanpon bat erabiliz eginez gero, fakturaren datan egingo da eurorako trukea.

8. Cuando el importe del gasto subvencionable supere las cuantías establecidas para el contrato menor en la normativa vigente en materia de contratos del sector público, la entidad beneficiaria deberá solicitar como mínimo tres ofertas de diferentes proveedores, con carácter previo a la contratación del servicio o la entrega del bien, salvo que por las especiales características de los gastos subvencionables no exista en el mercado suficiente número de entidades que lo suministren o presten, o salvo que el gasto se hubiera realizado con anterioridad a la solicitud de la subvención, circunstancia que deberá quedar explicada debidamente en la justificación.

9. La elección entre las ofertas presentadas, que deberán aportarse en la justificación, se realizará conforme a criterios de eficiencia y economía, debiendo justificarse expresamente en una memoria la elección cuando no recaiga en la propuesta económica más ventajosa.

10. La valoración del gasto subvencionable en moneda distinta al euro se convertirá a éste al tipo de cambio de la fecha de la factura.

## Bosgarrena.-Erakunde onuradunaren beste betebehar batzuk

Honako betebehar hauek izango ditu laguntzaren onuradunak:

a) dirulaguntza emateko arrazoi den helburu, proiektu, jarduera edo jokaera lortu, burutu egin edo hartzea

b) dirulaguntza ematen duen organoari betekizun eta baldintzak betetzen dituela frogatzea, baita dirulaguntza eman eta laguntzaz gozatu ahal izateko aintzat hartu

## Quinta.-Otras obligaciones de la entidad beneficiaria

La entidad beneficiaria estará obligada a:

a) cumplir el objetivo, ejecutar el proyecto, realizar la actividad o adoptar el comportamiento que fundamenta la concesión de la subvención.

b) justificar ante el órgano concedente el cumplimiento de los requisitos y condiciones, así como la realización de la actividad y el cumplimiento de la finalidad que determinen la concesión o disfrute de la subvención.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 9MRU-OR2F-TTX3-YY8Y
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

diren jarduera eta helburua egin eta lortu dituela ere.

c) diruz lagundutako jardueraren finantzaketaren izaera publikoari publizitatea ematea, jasotako laguntza aipatuz eta Bizkaiko Foru Aldundiaren logotipoa agerian jarriz diruz lagundutako jardueren zabalkunde publikoa egiteko material, argitalpen edo ekitaldi guztietan

c) dar publicidad al carácter público de la financiación de la actuación subvencionada mediante la mención de la ayuda recibida y la inclusión, en lugar visible, del logotipo de la Diputación Foral de Bizkaia en todos los materiales, publicaciones o eventos para divulgación pública de las actuaciones subvencionadas

d) aurrekontu ekitaldi batean Bizkaiko Foru Aldunditik gutxienez 100.000 eurokoak diren laguntzak edo dirulaguntzak jasotzen dituzten erakundeak edo urteko diru sarreren %40 foru laguntzak edo dirulaguntza publikoak direnean, baldin eta gutxienez, 5.000 eurokoak badira, bete egin beharko dituzte Bizkaiko gardentasunaren otsailaren 17ko 1/2016 Foru Arauko publizitate aktiboaren betebeharrak. Hau da:

d) las entidades privadas que durante un ejercicio presupuestario perciban de la Diputación Foral de Bizkaia ayudas o subvenciones que alcancen al menos una cuantía de 100.000,00 euros o cuando el 40% del total de sus ingresos anuales tengan el carácter de ayuda o subvención pública foral, siempre que alcancen, como mínimo 5.000,00 euros, deberán cumplir las obligaciones de publicidad activa contenidas en la Norma Foral 1/2016, de 17 de febrero, de transparencia de Bizkaia, lo que supone:

1. aurretik aipatutako mugak gainditu eta hurrengo urtetik aurrera webgunean informazio publiko garrantzitsua argitaratzea modu irisgarrian, doan, egiaz, eguneratuta eta berrerabiltzeko moduan.. Datu pertsonalak babestearen ariokok legeria errespetatuko da eta euskaldunen hizkuntz eskubideak bermatuko dira. Horretarako, informazio euskaraz eta gaztelaniaz argitaratuko da.

1º publicar, a partir del año siguiente en el que se hayan superado los umbrales mencionados con anterioridad, información pública relevante en su página web de forma accesible, gratuita, veraz, actualizada y reutilizable. Se respetará la legislación en materia de protección de datos personales y se garantizarán los derechos lingüísticos de la ciudadanía vasca debiendo publicarse dicha información tanto en euskera como en castellano.

2. informazioa eguneratuta mantentzea gutxienez lau urte naturaletan.

2º mantenerse publicada dicha información, debidamente actualizada, durante, al menos, cuatro (4) años naturales.

e) Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza koofizialak erabiltzea hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak ezartzen dituen maiatzaren 28ko 63/2019 Foru Dekretuaren 13.3 eta 13.4 artikuluetan ezarritakoarekin bat. Hau da:

e) utilizar las dos lenguas cooficiales de la Comunidad Autónoma Vasca, de acuerdo con lo establecido en el artículo 13.3 y 13.4 del Decreto Foral 63/2019, de 28 de mayo, por el que se establecen los criterios de uso de las lenguas oficiales, lo que supone:

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 9MRU-OR2F-TTX3-YY8Y
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

1. diruz lagundutako jarduera publiko guztietan bi hizkuntza koofizialak erabiltzea.

2. diruz lagundutako jarduerarekin lotutako materialetan, argital penetan eta bestelako euskarrietan bi hizkuntza koofizialak erabiltzea.

f) genero ikuspegia sartzea eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzea Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauaren 46. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz. Horrek hauxe esan nahi du:

1. emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuan jasotako printzipio orokorrak bete behar dituzte beren jardueretan, beren lanaren parte diren estatistikak genero-ikuspegira egokitu behar dira, zuzenean edo beste pertsona batzuen bitartez sortzen diren hizkuntza, irudi, euskarri eta dokumentu mota guztietan sexismorik gabeko erabilera egin behar da, eta emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatua bermatu behar da eratzen dituzten batzorde eta lantaldeetan..

2. emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzea lanpostuen definizioan, lanpostuak eskuratzean, kontratatzean eta azkentzean, lanbide-sailkapenean, sustapenean, prestakuntzan, laneko segurtasunean eta osasunean, ordainsari-politikan, erantzukidetasunean eta norberaren bizitza, lana, lanaldiaren iraupena eta antolamendua bateratzean, eta ekintza sindikalean, ordezkaritzan eta negoziazio kolektiboan, lan-baldintza duinak, zintzoak eta ez-diskriminatzaileak ziurtatuz, eta ordainsarien

1º utilizar las dos lenguas cooficiales en todas las actividades públicas resultantes de la actividad subvencionada.

2º utilizar las dos lenguas cooficiales en los materiales, publicaciones o cualquier otro soporte utilizado relacionado con la actividad subvencionada.

f) incorporar la perspectiva de género y promover la igualdad de mujeres y hombres de acuerdo con lo establecido en el artículo 46 de la Norma Foral 4/2018, de 20 de junio, para la igualdad de mujeres y hombres, lo que supone:

1º en sus actuaciones deben cumplir los principios generales recogidos en el Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la igualdad de mujeres y hombres y vidas libres de violencia machista contra las mujeres, que las estadísticas que formen parte de su trabajo se adecúen a una perspectiva de género, que se realice un uso no sexista en todo tipo de lenguaje, imágenes, soportes y documentos que se produzcan directamente o a través de terceras personas y que garanticen una representación equilibrada entre mujeres y hombres en las comisiones y equipos de trabajo que constituyan.

2º promover la igualdad de mujeres y hombres en la definición de los puestos de trabajo, acceso, contratación y extinción, clasificación profesional, promoción, formación, seguridad y salud laboral, política retributiva, corresponsabilidad y conciliación de la vida personal, laboral, duración y ordenación de la jornada laboral, y en la acción sindical, representación y negociación colectiva, asegurando unas condiciones laborales dignas, decentes y no discriminatorias y que se cumple el principio de transparencia e igualdad retributiva.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 9MRU-OR2F-TTX3-YY8Y
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

gardentasunaren eta berdintasunaren printzipioa betetzen dela ziurtatuz.

3. emakumeen eta gizonen tratamendua, protagonismoa eta balorazioa baliokideak direla zaintzea, eta berdintasunaren, presentzia orekatuaren, aniztasunaren, erantzunkidetasunaren eta genero-rolen eta -identitateen aniztasunaren balioak dituen irudia sustatzea, bai idatzizko, ahozko eta ikonografiako informazioan, publizitate-ekintzetan, barneko eta kanpoko komunikazioan, komunikazio formalean eta informalean, bai proiektua edo jarduera gauzatzearekin sortutako edo lotutako materialetan.

3º velar porque el tratamiento, protagonismo y valoración de mujeres y hombres sea equivalente y fomentar una imagen con valores de igualdad, presencia equilibrada, diversidad, corresponsabilidad y pluralidad de roles e identidades de género, tanto en la información escrita, oral, iconográfica, acciones publicitarias, comunicación interna y externa, formal e informal como en los materiales generados o relacionados con la ejecución del proyecto o actividad.

4. Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan aurreikusitako Berdintasun Plan bat izatera behartuta dauden erakundeen kasuan, plan hori edukitzea eta eraginkortasunez aplikatzea.

4º en el caso de entidades obligadas a tener de un Plan de Igualdad previsto en la Ley Orgánica 3/2007, de 22 de marzo, para la Igualdad efectiva de mujeres y hombres, disponer de dicho Plan, así como aplicarlo de manera efectiva.

5. lan-eremuan indarkeria matxista prebenitzeko, jarduteko, jarraipena egiteko, ebaluatzeko eta desagerrarazteko neurriak hartzen direla bermatzea, eta, bereziki, sexu-jazarpenari eta sexuan oinarritutako jazarpenari buruzkoak..

5º garantizar la adopción de medidas para prevenir, actuar, dar seguimiento, evaluar y erradicar la violencia machista en el ámbito laboral, y específicamente, las relativas al acoso sexual y acoso por razón de sexo.

g) kontabilitate-liburuak, erregistro izapidetuak eta gainerako dokumentuak behar bezala ikuskatuak izatea onuradunari kasu bakoitzean aplikatzekoa zaion merkataritzako eta sektoreko legeriak eskatutako baldintzetan, baita diruz lagundutako proiektuari dagozkion diru-sarrerak eta gastuak bereiz identifikatzea ahalbidetzen duten kontabilitateko egoera-orri eta erregistro espezifiko guztiak ere, aparteko kontabilitate-sistema baten bidez edo proiektuarekin lotutako transakzio guztietarako egokia den kontabilitate-kode bat esleituta, egiaztapen- eta kontrol-ahalmenak behar bezala gauzatzen direla bermatzeko.

g) disponer de los libros contables, registros diligenciados y demás documentos debidamente auditados en los términos exigidos por la legislación mercantil y sectorial aplicable a la persona beneficiaria en cada caso, así como cuantos estados contables y registros específicos que permitan la identificación separada de los ingresos y gastos correspondientes al proyecto subvencionado, bien mediante un sistema de contabilidad aparte bien asignando un código contable adecuado a todas las transacciones relacionadas con el proyecto, con la finalidad de garantizar el adecuado ejercicio de las facultades de comprobación y control.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 9MRU-OR2F-TTX3-YY8Y
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

h) jasotako funtsen erabilera frogatzen duten agiriak gordetzea, dokumentu elektronikoak barne, egiaztapen eta kontrol ekintzetarako erabilgarriak izan daitezkeen neurrian.

i) 5/2005 Foru Arauaren 33. artikuluan jasotako kasuetan jasotako funtsak itzultzea.

j) baldin eta dirulaguntza emateko orduan kontuan hartu diren inguruabar objektibo edo subjektiboetatik edozein aldatu bada, aldaketa horren barri ematea dirulaguntza eman dionari.

k) Foru Administrazioko organoek eskatzen dieten laguntza eta dokumentazioa ematea, bai eta, Europar Batasuneko araudiaren arabera, finantza-kontroleko eginkizunak esleituta dituzten organoek ere. Horretarako, honako ahalmen hauek izango dituzte:

1. sarbide librea egiaztatu beharreko dokumentaziora, informatika-euskarrietako programak eta artxiboak barne.

2. sarbide librea negozio-lokaletara eta diruz lagundutako jarduera garatzen den gainerako establezimendu edo lekuetara, edo dirulaguntzaren arabera finantzatutako eragiketen errealitatea eta erregulartasuna egiaztatzeko aukera.

3. fakturak, agiri baliokideak edo ordezkoak eta eragiketei buruzko beste edozein agiri atxikitzea edo kopia eskuratzea, baldin eta dirulaguntza behar ez bezala lortu, eskuratu edo erabili dela erakusten duten zantzuak badaude.

4. dirulaguntzak kobratu diren edo funtsak erabili diren finantza-erakundeen banku-

h) conservar los documentos justificativos de la aplicación de los fondos recibidos, incluidos los documentos electrónicos, en tanto puedan ser objeto de las actuaciones de comprobación y control.

i) proceder al reintegro de los fondos percibidos en los supuestos contemplados en el artículo 33 de la Norma Foral 5/2005.

j) comunicar a la entidad concedente la modificación de cualquier circunstancia tanto objetiva como subjetiva que hubiera sido tenida en cuenta para la concesión de la subvención.

k) prestar colaboración y facilitar cuanta documentación sea requerida por los órganos de la Administración Foral, así como a los órganos que, de acuerdo con la normativa comunitaria, tengan atribuidas funciones de control financiero, a cuyo fin tendrán las siguientes facultades:

1º el libre acceso a la documentación objeto de comprobación, incluidos los programas y archivos en soportes informáticos.

2º el libre acceso a los locales de negocio y demás establecimientos o lugares en que se desarrolle la actividad subvencionada o se permita verificar la realidad y regularidad de las operaciones financiadas con arreglo a la subvención.

3º la obtención de copia o la retención de las facturas, documentos equivalentes o sustitutivos y de cualquier otro documento relativo a las operaciones en las que se deduzcan indicios de la incorrecta obtención, disfrute o destino de la subvención.

4º el libre acceso a la información de las cuentas bancarias de las entidades financieras donde se pueda haber efectuado el cobro de las subvenciones o con cargo a

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 9MRU-OR2F-TTX3-YY8Y
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

kontuei buruzko informazioa askatasunez eskuratzea.

Betebehar hori betetzeari uko egitea erresistentziatzat, aitzakiatzat, oztopatzetzat edo negatibotzat hartuko da 5/2005 Foru Arauaren 33. artikuluan aurreikusitako ondorioetarako, hargatik eragotzi gabe izan litezkeen zehapenak (5/2005 Foru Arauaren 41. artikulua).

l) emakumeen eta gizonen berdintasunarekin lotutako betebeharrak betetzen direla egiaztatzeko jarduketak onartzea eta betebehar horiek betetzen direla justifikatzeko dokumentazioa ematea. Lankidetza eta dokumentazioa emateari uko egitea ezarritako betebeharrak ez betetzetzat joko da, 5/2005 Foru Arauaren 33.1 f) artikuluan adierazitakoaren ondorioetarako.

las cuales se puedan haber realizado las disposiciones de fondos.

La negativa al cumplimiento de esta obligación se considerará resistencia, excusa, obstrucción o negativa a los efectos previstos en el artículo 33 de la Norma Foral 5/2005, sin perjuicio de las sanciones que, en su caso, pudieran corresponder (artículo 41 Norma Foral 5/2005).

l) someterse a las actuaciones de comprobación del cumplimiento de las obligaciones relacionadas con la igualdad de mujeres y hombres y facilitar la documentación justificativa de su cumplimiento. La negativa a prestar la colaboración y facilitar la documentación se considerará incumplimiento de las obligaciones impuestas a los efectos de lo indicado en el artículo 33.1 f) de la Norma Foral 5/2005.

Seigarrena.- Jarraipen zaintza eta kontrolerako mekanismoak, hitzarmenaren betearazpenari eta hartutako konpromisoei aplikatzekoak.

1. Jasotzen den zenbatekoa hitzarmenaren xederako baino ez da erabiliko, bertan ezarritakoak zehatz betez. Horrez gain, Bizkaiko Foru Aldundiko Enpresak Sustatzeko Zerbitzuaren egiaztapen jardueren, Ogasun eta Finantza Sailari dagozkion finantza kontrol eta auditoretza jardueren eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren fiskalizazio prozeduren pean jarriko da.

2. Onuradun den erakundeak, nahitaez justifikatu beharko du bete egiten dituela diru-laguntza emateko edo baliatzeko betekizunak eta baldintzak, bai eta jarduera egin duela eta haren helburua bete duela ere.

Sexta.- Mecanismos de seguimiento, vigilancia y control de la ejecución del convenio y de los compromisos adquiridos.

1. El importe recibido se utilizará para el destino específico objeto de este convenio, con estricta sujeción a los términos establecidos y se someterá a las actuaciones de comprobación por parte del Servicio de Promoción Empresarial de la Diputación Foral de Bizkaia, en su caso, y a las de control financiero y auditoría que corresponden al Departamento Foral de Hacienda y Finanzas y a los procedimientos fiscalizadores del Tribunal Vasco de Cuentas.

2. La entidad beneficiaria está obligada a justificar el cumplimiento de los requisitos y condiciones, así como a la realización de la actividad y el cumplimiento de la finalidad que determinan la concesión o disfrute de esta subvención.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 9MRU-OR2F-TTX3-YY8Y
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

3. Hitzarmen hau sinatzearen ondorioz jasotako dirulaguntzaren aplikazioaren justifikazioa Ekonomia Sustatzeko Sailean aurkeztu beharko da 2025eko ekainaren 30a baino lehen.

3. La justificación de la aplicación de la subvención recibida como consecuencia de la firma del presente convenio deberá presentarse a través de la oficina virtual del Departamento de Promoción Económica antes del 30 de junio de 2025.

4. Ezarritako justifikazio-epea igaro bada eta ez bada aurkeztu instrukzioaren ardura duen organoan, organo horrek erakunde onuradunari eskatuko dio justifikazioa aurkez dezala hamabost (15) egun balioduneko epe luzaezinean, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita. Justifikazioa epe barruan aurkezten ez bada, dirua itzuli beharko da, bai eta 5/2005 Foru Arauaren 37. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako gainerako erantzukizunak ere.

4. Transcurrido el plazo de justificación establecido sin haberse presentado ante el órgano a cargo de la instrucción, éste requerirá a la entidad beneficiaria para que en el plazo improrrogable de quince (15) días hábiles contados a partir del día siguiente al de la notificación, la justificación sea presentada. La falta de presentación de la justificación en el plazo llevará consigo la exigencia de reintegro y demás responsabilidades establecidas en los artículos 37 y siguientes de la Norma Foral 5/2005.

5. Ezarritako baldintzak bete direla eta aurreikusitako helburuak lortu direla justifikatzeko, justifikazio-kontuaren sistema erabili beharko da, 34/2010 Foru Dekretuaren 57. artikuluan aurreikusitako gastuen egiaztagiriak aurkeztuta, eta Ekonomia Sustatzeko Sailaren bulego birtualean eskatutako informazioa beteta, dirulaguntza justifikatzeko izapidearen barruan. Honako dokumentazio hau jaso beharko da:

5. La justificación del cumplimiento de las condiciones impuestas y de la consecución de los objetivos previstos deberá realizarse mediante el sistema de cuenta justificativa con aportación de justificantes de gasto previsto en el artículo 57 del Decreto Foral 34/2010 cumplimentando la información requerida en la oficina virtual del Departamento de Promoción Económica, dentro del trámite de justificación de la subvención, que deberá contener la siguiente documentación:

.5.1 Ezarritako baldintzak betetzen direla justifikatzen duen jarduera-memoria, egindako jarduerak eta lortutako emaitzak adierazita. Era berean, erakunde onuradunak adierazi beharko du diruz lagundutako proiektuaren xedea bete den, bere ustez.

5.1 Una memoria de actuación justificativa del cumplimiento de las condiciones impuestas, con indicación de las actividades realizadas y de los resultados obtenidos. Así mismo, la entidad beneficiaria deberá declarar de manera justificada si, a su juicio, se ha cumplido a su satisfacción el objeto del proyecto subvencionado.

5.2 Egindako jardueren justifikazio ekonomikoa eskatutako informazioa ematean datza, hau da:

5.2 La justificación económica de las actividades realizadas consistirá en proporcionar la información requerida, esto es,

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 9MRU-OR2F-TTX3-YY8Y
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

a) diruz lagundutako proiektua gauzatzean egindako gastuari dagokionez, egindako gastu mota bakoitzeko, erantsitako excel koadroa betetzea, dagozkion fakturak eta ordainagiriak erantsita.

a) en relación al gasto incurrido en la ejecución del proyecto subvencionado por cada tipo de gasto realizado, la cumplimentación del cuadro excel anexado que deberá ir acompañado por las correspondientes facturas y justificantes de pago.

Kontratu txikiaren zenbatekoa baino zenbateko handiagoko gastuak egin badira, hiru hornitzaileren eskaintzak aurkeztu beharko dira, eskaintza egokiena aukeratzeko txostenarekin batera.

En el supuesto de haber incurrido en gastos de importe superior a la cuantía del contrato menor, es necesario aportar tres ofertas de diferentes proveedores junto con un informe de elección de la oferta más adecuada.

Zenbatekoa hainbanaketa bidez esleitzen denean, hitzarmen honen helburu diren jarduketei dagokien gastu osoan ehunekoa zehatzen duen kalkulu sistema eman beharko da.

En los casos en los que se asigne un importe mediante prorrateo se deberá aportar el sistema de cálculo que permita determinar el porcentaje de gasto total asignado a las actuaciones objeto del presente convenio.

b) dirulaguntzaren erakunde onuradunak lortutako diru-sarrerei dagokienez, erantsitako excel koadroa bete beharko da, lortutako diru-sarrera motari dagokiona, eta, horrekin batera, erakundearen legezko ordezkariaren ziurtagiria aurkeztu beharko da, proiekturako jaso eta aurreikusitako diru-sarrerak adierazita, eta helburu bererako beste edozein administrazio edo erakunde publiko edo pribatutatik — Estatukoa, Europar Batasunekoa edo nazioartekoa — jasotako dirulaguntzak, laguntzak, diru-sarrerak edo baliabideak adierazita, zenbatekoa eta jatorria adierazita.

b) en relación a los ingresos obtenidos por la entidad beneficiaria de la subvención se deberá cumplimentar el cuadro excel anexado correspondiente al tipo de ingreso obtenido, acompañado de una certificación de la persona que ostenta la representación legal de la entidad indicando los ingresos recibidos y previstos para el proyecto, indicando las subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad procedentes de cualesquiera Administraciones o entes públicos o privados, nacionales, de la Unión Europea o de organismos internacionales, con indicación del importe y su procedencia.

5.3. Ezarritako gainerako betebeharrak bete direla egiaztatzen duen memoria –dirulaguntza zabaltzea, gardentasun-araudia betetzea, hizkuntza koofizialen erabilerari buruzkoa, genero-berdintasunekoa, beste gizarte-politika batzuetakoa –, bete direla egiaztatzen duten dokumentuak erantsita. Justifikazio-memoria hori erakunde onuradunak Bizkaiko Foru Aldundiaren

5.3. Memoria justificativa del cumplimiento del resto de las obligaciones impuestas - difusión de la subvención, cumplimiento de la normativa de transparencia, sobre el uso de las lenguas cooficiales, de igualdad de género, otras políticas sociales, - adjuntando los documentos que acrediten su cumplimiento. Esta memoria justificativa deberá presentarse según el modelo que se

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 9MRU-OR2F-TTX3-YY8Y
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

webgunean duen ereduaren arabera aurkeztu beharko da. Inprimakiak eta formularioak - Bizkaia.eus

https://www.bizkaia.eus/eu/gaia-xehetasuna/-/edukia/dt/4796?Tem_PlId=7993348

encuentra a disposición de la entidad beneficiaria en la web de la Diputación Foral de Bizkaia. Impresos y formularios - Bizkaia.eus

https://www.bizkaia.eus/es/tema-detalle/-/edukia/dt/4796?Tem_PlId=7993348

6. Dirulaguntza honen erakunde onuradunak bere esku eduki behar ditu gauzatutako gastu bakoitzaren egiaztagiriak eta egiaztagiriak egin daitezkeen egiaztapen- eta kontrol-jarduerak, hitzarmena indarrean dagoen bitartean gutxienez, eta, betiere, aplikatzekoa den araudiak dokumentazio horren izaera kontuan hartuta zehazten duen denboran.

6. La entidad beneficiaria de esta subvención debe conservar en su poder para las actuaciones de comprobación y control que se puedan realizar los justificantes y documentos acreditativos de cada uno de los gastos ejecutados, al menos durante toda la vigencia del convenio, y en todo caso, el tiempo que determine la normativa aplicable atendiendo a la naturaleza de dicha documentación.

7. Ildo horretan, espedientea ixteko berrikuspenean hurrengoak egiaztatuko dira:

a) akordio honetan aurreikusitako jarduera guztiak burutu dira,

b) erakunde onuradunak jarduketa honi buruz aurkeztutako justifikazio guztiak jasotako laguntza publiko eta/edo pribatu guztien berdinak edo handiagoak dira.

c) helburura hitzarmenean ezarritako terminoetan bete da eta bi alderdien gogobetetasuna lortu da.

7. Así, en la revisión para el cierre del expediente se comprobará que:

a) se han ejecutado todas las actuaciones previstas en el presente acuerdo,

b) la totalidad de las justificaciones aportadas por la entidad beneficiaria en relación a esta actuación son iguales o superiores al conjunto de ayudas públicas y/o privadas percibidas,

c) el objeto se ha cumplido en los términos del convenio y a satisfacción de ambas partes.

## Zazpigarrena.- Alderdiek bere gain hartutako betebehar eta konpromisoak ez betetzearen ondorioak

1.Jasotako dirulaguntza itzuli beharko da, eta dirulaguntza ordaintzen denetik itzuli behar dela erabakitzen den egunera arteko berandutze-interesak eskatuko dira, eta, hala badagokio, dirulaguntza kobratzeko eskubidea galduko da:

## Séptima.- Consecuencias por incumplimiento de las obligaciones y compromisos asumidos por las partes

1. Procederá el reintegro de la subvención recibida y la exigencia del interés de demora correspondiente desde el momento del pago de la subvención hasta la fecha en la que se acuerde la procedencia del reintegro y, en su caso, la pérdida del derecho al cobro de la subvención:

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 9MRU-OR2F-TTX3-YY8Y
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

a) hitzarmen honetan edo aplikatu beharreko araudian ezarritako betebehar edo baldintzaren bat betetzen ez denean.

b) dirulaguntzen araubide juridikoari buruzko 5/2005 Foru Arauaren 33. artikuluan edo haren Erregelamendua onartzen duen 34/2010 Foru Dekretuan aurreikusitako kausaren bat dagoenean.

2. Itzuli beharreko zenbatekoak zuzenbide publikoko diru-sarreratzat hartuko dira ondorio guztietarako.

3. Aplikatu beharreko berandutze-interesa 5/2005 Foru Arauaren 34.2 artikuluan aurreikusitakoa izango da.

4. Itzultzeko prozedura 5/2005 Foru Arauaren II. tituluan eta 34/2010 Dekretuaren III. tituluan xedatutakoaren arabera izapidetuko da.

5. Dirulaguntza emateko ezarritako baldintzak betetzen ez badira, horiek mailakatzeko irizpideak honako hauek izango dira:

a) ebazpenean ezarritako epean dirulaguntzaren xede den jarduerarako gastuaren xedapena betetzen ez bada, emandako dirulaguntza guztiz galduko da.

b) dirulaguntzaren xede den jardueraren gastua ezarritako epean partzialki xedatzen bada, erabili ez den zatiari dagokion dirulaguntza galduko da, betiere zati hori erabiltzeak ez badu eragozten diruz lagundutako jarduketaren xedea lortzea.

c) jarduketa gauzatzeko epeak betetzen ez badira, jasotako zenbatekoak eta berandutze-interesak itzuli beharko dira. Hala ere, jarduketak ez badira amaitu epe orokorrean baina haien zatiren bat epearen barruan egin bada, epe barruan egin ez den

a) cuando se incumpla alguna de las obligaciones o condiciones establecidas en este convenio o en la normativa de aplicación.

b) cuando se incurra en alguna de las causas previstas en el artículo 33 de la Norma Foral 5/2005, de régimen jurídico de subvenciones o en el Decreto Foral 34/2010, que aprueba su Reglamento.

2. Las cantidades a reintegrar tendrán la consideración de ingresos de Derecho Público a todos los efectos.

3. El interés de demora aplicable será el previsto en el artículo 34.2 de la Norma Foral 5/2005.

4. El procedimiento de reintegro se tramitará con sujeción a lo dispuesto en el Título II de la Norma Foral 5/2005 y en el Título III del Decreto 34/2010.

5. Los criterios para la graduación de los incumplimientos de las condiciones impuestas con motivo del otorgamiento de la subvención serán los siguientes:

a) el incumplimiento de la disposición del gasto para la actuación para la que se otorgó la subvención, en el plazo establecido en la resolución, conllevará la pérdida total de la subvención concedida.

b) la disposición parcial del gasto de la actuación para que se otorgó la subvención en el plazo establecido dará lugar a la pérdida de la subvención correspondiente a la parte no dispuesta, siempre que dicha disposición parcial no impida la consecución del objeto de la actuación subvencionada.

c) el incumplimiento de los plazos de ejecución de la actuación conllevará la obligación de reintegro de las cantidades percibidas junto con los intereses de demora. No obstante, cuando las actuaciones no hayan sido terminadas en el plazo general

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 9MRU-OR2F-TTX3-YY8Y
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

zatiaren dirulaguntzaren zenbatekora mugatuko da itzultzeko betebeharra, betiere zati bat gauzatze horrek jarduketaren helburua lortzea eragozten ez badu.

pero alguna parte de ellas haya sido realizada en plazo, la obligación de reintegro se limitará a la cuantía de la subvención de la parte no realizada en plazo, siempre que dicha ejecución parcial no impida la consecución del objetivo de la actuación.

d) ekintzak edo gastuak gauzatzerakoan edo justifikatzerakoan ez-betetze partzialik izanez gero, itzuli beharreko zenbatekoa zehazteko, proportzionaltasun-irizpidea hartuko da kontuan, eta dirulaguntza emateko ezarritako baldintzak zenbateraino bete ez diren hartuko da kontuan.

d) la cantidad a reintegrar en caso de incumplimiento parcial en la ejecución o en la justificación de las acciones o gastos vendrá determinada, con arreglo al criterio de proporcionalidad, atendiendo a la entidad y grado de incumplimiento de las condiciones impuestas con motivo de la concesión de la subvención.

e) behar baino gehiagoko finantzazioa denean beste laguntza batzuk ere ematen direla-eta (maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauko 18.3. artikuluan ezarrita), bidezkoa izango da behar baino gehiago ordaindutakoa itzultzea, eta berandutze-interesa aplikatuko da.

e) en el supuesto de sobrefinanciación, por concurrencia con otras ayudas, contemplado en el artículo 18.3 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, procederá el reintegro por la cantidad excedida, a la que se aplicará el correspondiente interés de demora.

f) hedapenari, gardentasunari, hizkuntza koofizialak erabiltzeari, genero-berdintasunari eta beste gizarte-politika batzuei buruzko betebeharrak betetzen ez badira, kobratzeko eskubidea galduko da edo emandako dirulaguntzaren % 10 itzuli beharko da, gehienez ere. Kasu zehatz bakoitzerako emandako dirulaguntzaren ehunekoa zehazteko orduan, adierazitako gehieneko mugaren barruan, proportzionaltasun-printzipioa aplikatuko da, honako irizpide hauen arabera: bete ez diren betebeharrak, horien garrantzia, onuradunaren jarduera, bete nahi den ala ez, ez-betetzearen arrazoiak eta ez-betetze horiek helburuak lortzeko moduari nola eragiten dioten, jarduera egitea, proiektua gauzatzea edo dirulaguntza ematea oinarritzen duen portaera hartzea.

f) el incumplimiento de las obligaciones de difusión, transparencia, uso de lenguas cooficiales, igualdad de género y otras políticas sociales conllevará la pérdida del derecho al cobro y/o el reintegro parcial de hasta un máximo del 10% de la subvención concedida. A la hora de determinar para cada caso concreto el porcentaje de la subvención concedida dentro del límite máximo indicado, se aplicará el principio de proporcionalidad atendiendo a los siguientes criterios: las obligaciones incumplidas, la entidad de las mismas, la actuación de la persona beneficiaria tendente o no a su cumplimiento, las causas del incumplimiento y cómo afectan dichos incumplimientos al modo en que se han de conseguir los objetivos, realizar la actividad, ejecutar el proyecto o adoptar el comportamiento que fundamenta la concesión de la subvención.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 9MRU-OR2F-TTX3-YY8Y
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

g) oinarri hauetan ezarritako gainerako betebeharrak ez betetzeak emandako dirulaguntza osorik edo zati batean galtzea ekarriko du, oinarrietan xedatutakoaren arabera, eta berariazko aurreikuspenik ezean, itzuli beharreko zenbatekoa proportzionaltasun-irizpidearen arabera ezarriko da, ez-betetzeak lortu nahi den helbururako duen garrantzia eta interes publikoari eragindako kaltea kontuan hartuta.

g) el incumplimiento del resto de las obligaciones establecidas en las presentes bases conllevará la pérdida total o parcial de la subvención concedida en función de lo que dispongan las bases, y en ausencia de previsión expresa, la cantidad a reintegrar se fijará con arreglo al criterio de proporcionalidad atendiendo a la entidad y grado de relevancia del incumplimiento para la finalidad perseguida y el perjuicio para el interés público.

## Zortzigarrena.- Hitzarmena aldatzeko araubidea

## Octava.- Régimen de modificación del convenio

1. Erakunde onuradunak emakida ebazpenaren aldaketak eskatu ahal izango dizkio Bizkaiko Foru Aldundiari, baldin eta aldaketa horiek justifikazio-epea luzatzea, emandako zenbatekoa murriztea edo jardueran sartzen diren ekintzak aldatzea badakarte. Aldaketa horiek baimendu ahal izango dira ustekabeko egoeretan gertatzen direnean edo jarduera behar bezala burutzeko beharrezkoak direnean, betiere dirulaguntzaren xedea aldatzen ez bada eta hirugarren pertsonen eskubideak urratzen ez badira.

1. La entidad beneficiaria podrá solicitar a la Diputación Foral de Bizkaia modificaciones de la resolución de concesión que supongan ampliación del plazo de justificación, reducción del importe concedido o alteración de las acciones que se integran en la actividad, que serán autorizadas cuando traigan su causa en circunstancias imprevistas o sean necesarias para el buen fin de la actuación, siempre que no se altere el objeto o finalidad de la subvención y no se perjudiquen derechos de terceras personas.

2. Eskaera hori diruz lagundutako jarduera egiteko bi hilabete epea amaitu baino lehen aurkeztu beharko da, dirulaguntza emateko ebazpena aldatzeko beharrezko izapideak egin daitezen, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 32. artikuluan ezarritakoaren arabera. Aldaketarako eskaerari buruzko ebazpen berariaz eman ezean, aldaketa ukatu egin dela ulertuko da.

2. Dicha solicitud debe realizarse al menos dos meses antes de que finalice el plazo para realizar la actividad subvencionada, al objeto de realizar la tramitación necesaria para modificar la resolución de concesión, según el art. 32 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas. En caso de no producirse resolución expresa referente a dicha solicitud de modificación, se entenderá que dicha modificación no ha sido concedida.

3. Dirulaguntza ematen duen organoak laguntza hori emateko ebazpena aldatu ahal izango du ofizioz, kasu honetan laguntza emateko kontuan izan diren baldintzak aldatu

3. El órgano concedente de la subvención podrá modificar de oficio la resolución de concesión, previa audiencia de la parte interesada cuando la alteración de las condiciones tenidas en

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 9MRU-OR2F-TTX3-YY8Y
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

badira eta, aldaketa horren ondorioz, xede den interes publikoa lortzea eragozten edo arriskuan jartzen bada, eta entitate onuradunari kalte ekonomikorik eragiten ez bazaio.

cuenta para la concesión impida o dificulte la consecución del interés público perseguido y no se irroguen perjuicios económicos a la entidad beneficiaria.

4. Era berean, Dirulaguntzei buruzko Foru Arautegiaren 71. artikuluak ezarritakoari jarraiki, dirulaguntzaren entitate onuradunak adieraziz gero justifikazioan dirulaguntza emateko kontuan hartutako baldintzetan, funtsean aldatzen ez dituztenak dirulaguntzaren izaera edo helburuak, ebazpenaren aldaketa eragin ahal izan dituzten aldaketak gertatu direla, onesteko aurretiko administrazio-baimenaren tramitea egin gabe, dirulaguntza eman duen organoak aurkeztutako justifikazioa onartu ahalko du, baldin eta hori onartzeak hirugarrenen eskubideei kalterik eragiten ez badie, horrek guztiak onuraduna 5/2005 Foru Arauak ezarritakoaren arabera egotz dakizkiokeen zehazpenetatik salbuetsi gabe.

4. Así mismo, de conformidad con el artículo 71 del Reglamento Foral de Subvenciones, cuando la entidad beneficiaria de la subvención ponga de manifiesto en la justificación que se han producido alteraciones de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la misma, que no alteren esencialmente la naturaleza u objetivos de la subvención, que hubieran podido dar lugar a la modificación de la resolución, habiéndose omitido el trámite de autorización administrativa previa para su aprobación, el órgano concedente de la subvención podrá aceptar la justificación presentada, siempre y cuando tal aceptación no suponga dañar derechos de terceras personas, y sin que ello exima a la entidad beneficiaria de las sanciones que puedan corresponder con arreglo a la Norma Foral 5/2005.

## Bederatzigarrena.- Azpikontratatzeko baldintzak

## Novena.- Condiciones de subcontratación

1. Honako hau joko da azpikontratatziotzat entitate onuradunak hirugarren pertsona batekin hitzartzen duenean dirulaguntzaren xedeko jarduera oso-osorik edo zati bat egitea. Azpikontratazioaren kontzeptu horretatik kanpo gelditzen da entitate onuradunak diruz lagundutako jarduera bere kabuz gauzatzeko egin behar dituen gastuen kontratazioa.

1. Se entiende que la entidad beneficiaria subcontrata cuando concierta con terceras personas la ejecución total o parcial de la actividad que constituye el objeto de la subvención. Queda fuera de este concepto la contratación de aquellos gastos en que tenga que incurrir la entidad beneficiaria para la realización por sí misma de la actividad subvencionada.

2. Erakunde onuradunak diruz lagundutako jardueraren zati bat azpikontratatu ahal izango du. Azpikontratatuko jarduera %70koa izan daiteke.

2. La entidad beneficiaria podrá subcontratar parcialmente la actividad subvencionada. La actividad que la entidad beneficiaria subcontrate podrá alcanzar el 70%.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 9MRU-OR2F-TTX3-YY8Y
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

3. Inola ere ezingo dira azpikontratatu diruz lagundutako jarduerarenen kostua handitu arren jarduera horri balio erantsirik ez dakarkioten jarduerak.

4. Hirugarren pertsona batzuekin hitzartutako jarduerarenen kostuak dirulaguntzaren % 20 gainditzen badu eta zenbateko hori 60.000 euro baino gehiago bada, orduan, kontratua idatziz formalizatuko honako baldintza hauek bete beharko ditu:

a) kontratua idatziz egin beharko da

b) kontratua egin aurretik dirulaguntza eman duen erakundeak baimena eman beharko du, oinarri arautzaile hauetan ezarri den bezala.

5. Erakunde onuradunak Dirulaguntzen Erregelamenduaren 53.2 artikuluan aipatzen diren eta harekin lotura duten pertsonak edo erakundeak azpikontratatu ahal izango ditu, baldin eta:

a) kontratazioa merkatuko baldintza normalen arabera egiten bada

b) eta, betiere, Bizkaiko Foru Aldundiaren aldez aurreko baimena lortzen bada.

6. Azpikontratatzeko aldez aurreko baimena behar den kasu guztietan, azpikontratazio-eskaerak zein baldintza nagusitan egingo den adierazi beharko du, eta Ekonomia Sustatzeko foru diputatuak ebatziko du 45 egun balioduneko epean, Ekonomia Sustatzeko Sailaren bulego birtualean aurkezten denetik zenbatzen hasita. Epe hori amaitzean berariazko ebazpenik jakinarazten ez bada, administrazio-isiltasunagatik ezetsitzat joko da.

3. En ningún caso podrán subcontratarse actividades que, aumentando el coste de la actividad subvencionada, no aporten valor añadido al contenido de la misma

4. Cuando la actividad concertada con terceras personas exceda del 20% del importe de la subvención y dicho importe sea superior a 60.000 euros, la subcontratación estará sometida a al cumplimiento de los siguientes requisitos:

a) que el contrato se celebre por escrito

b) que la celebración del mismo se autorice previamente por la entidad concedente de la subvención en la forma en que se determine en estas bases reguladoras

5 La entidad beneficiaria podrá subcontratar con personas o entidades vinculadas con ella a las que se refiere el artículo 53.2 del Reglamento de Subvenciones siempre que:

a) la contratación se realice de acuerdo con las condiciones normales del mercado

b) y siempre que se obtenga autorización previa de la Diputación Foral de Bizkaia.

6. En todos los casos en los que sea necesaria la autorización previa para subcontratar, la solicitud de subcontratación deberá indicar las principales condiciones en las que se va a realizar y será resuelta por la diputada foral de promoción económica en un plazo de 45 días hábiles desde su presentación en la oficina virtual del Departamento de Promoción Económica, entendiéndose desestimada por silencio administrativo si no se notifica resolución expresa al término de dicho plazo.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 9MRU-OR2F-TTX3-YY8Y
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

7. Dirulaguntzaren erakunde onuradunak arduratuko dira azpikontratatutako jarduera gauzatzean dirulaguntza arautzen duen araudiak ezartzen dituen mugak errespetatzeaz, diruz lagun daitezkeen izaera eta gastuei dagokienez.

8. Kontratistak onuradunaren aurrean bakarrik egongo dira behartuta, eta hark bere gain hartuko du diruz lagundutako jarduera gauzatzeko erantzukizun osoa Administrazioaren aurrean, 5/2005 Foru Arauaren 41. artikuluan aurreikusitako lankidetza-betebeharrari kalterik egin gabe. Halaber, genero-berdintasunaren arloan indarrean dagoen araudian aurreikusitako printzipio orokorrak eta betebeharrak errespetatu beharko dituzte.

7. Las entidades beneficiarias de la subvención serán las responsables de que en la ejecución de la actividad subcontratada se respeten los límites que establece la normativa reguladora de la subvención en cuanto a la naturaleza y gastos subvencionables.

8. Las personas contratistas quedan obligadas sólo ante la entidad beneficiaria, que asumirá la total responsabilidad de la ejecución de la actividad subvencionada frente a la Administración, sin perjuicio del deber de colaboración previsto en el artículo 41 de la Norma Foral 5/2005. Así mismo, deberán respetar los principios generales y las obligaciones previstas en la normativa en vigor en materia de igualdad de género.

## Hamargarrena.- Hitzarmenak azkentzea

1. Hitzarmen hau azkenduko da edo bere xede diren jarduketak betetzean edo suntsiarazteko arrazoiak gertatzean.

2. Erakunde onuradunak hitzarmen honen ondoriozko betebeharrak betetzen ez baditu, Bizkaiko Foru Aldundiak hitzarmena suntsiarazteko ahalmena izango du.

3. Hitzarmena iraungitzeak ez dakar berarekin erakunde onuradunari hitzarmenetik eratorritako betebeharrak iraungitzea.

## Décima.- Extinción del convenio

1. Este convenio se extinguirá por el cumplimiento de las actuaciones que constituyen su objeto.

2. El incumplimiento de las obligaciones derivadas del convenio por parte de la entidad beneficiaria facultará a la Diputación Foral de Bizkaia para la resolución del mismo.

3. La extinción del convenio no implica la de las obligaciones de la entidad beneficiaria derivadas del mismo.

## Hamaikagarrena.- Dirulaguntza borondatez itzultzea

1. Onuradunak berak Administrazioaren aurretiazko errekerimendurik gabe egindako da borondatezko itzulketa.

## Undécima.- Devolución de la subvención por propia iniciativa

1. Se entiende por devolución voluntaria aquella que es realizada por la entidad beneficiaria sin el previo requerimiento de la Administración.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 9MRU-OR2F-TTX3-YY8Y
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

2. Borondatezko itzulketa egiten denean, Administrazioak dagozkion berandutze-interesak kalkulatuko ditu 5/2005 Foru Arauaren 34. artikuluan ezarritakoaren behin betiko itzulketa benetan egin duen unera arte.

2. Cuando se produzca la devolución voluntaria la Administración calculará los intereses de demora, de acuerdo con lo previsto en el artículo 34 de la Norma Foral 5/2005 y hasta el momento en que se produjo la devolución efectiva por parte de la entidad beneficiaria.

3. Onuradunak berak bere borondatez itzuli nahi badu dirulaguntza, ordainketa-gutuna erabili beharko du, Bizkaiko Foru Aldundiaren eredu ofizialaren arabera, Ekonomia Sustatzeko Sailaren bulego birtualean eskatu eta gero.

3. La devolución de la subvención a iniciativa de la entidad beneficiaria se realizará a través de la correspondiente carta de pago, que será remitida según el modelo oficial de la Diputación Foral de Bizkaia, una vez sea solicitada a través de la oficina virtual del Departamento de Promoción Económica.

## Hamabigarrena.- Datu pertsonalen babesa

Datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 13. artikulua eta Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren 11. artikulua betez, tratamenduak honela egingo dira:

- Tratamendu-jarduera:

  Ekonomia sustatzeko ekintzak kudeatzea eta kontrolatzea

- Tratamendu arduraduna eta kontaktua:

  Ekintzailetza, Talentua eta Enpresen Lehiakortasuna bultzatzeko Zuzendaritza Nagusia

- Tratamenduaren helburua:

  Honako helburu hauek dituzten ekonomia-sustapeneko ekintzak kudeatu eta kontrolatzea: ekintzailetza aurreratua sustatzea; startupak azeleratzea; Bizkaia ekintzailetza eta berrikuntza irekiko

## Duodécima.- Protección de datos de carácter personal

En cumplimiento del artículo 13 del Reglamento 2016/679 (UE), relativo a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de datos personales y a la libre circulación de estos datos, y del artículo 11 de la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de datos personales y garantía de los derechos digitales, los tratamientos se realizarán del siguiente modo:

- Actividad de tratamiento:

  Gestión y control de las acciones de promoción económica

- Responsable del tratamiento y contacto:

  Dirección General de Emprendimiento, Talento y Competitividad Empresarial

- Finalidad del tratamiento:

  Gestión y control de las acciones de promoción económica orientadas a fomentar el emprendimiento avanzado, acelerar las startups, posicionar Bizkaia como referente de emprendimiento e

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 9MRU-OR2F-TTX3-YY8Y
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

erreferente gisa kokatzea; finantzaketa-ekosistema erakargarria sendotzea; talentua erakarri eta sustatzea; emakumeek enpresan, zientzian eta teknologian duten eginkizuna ikusarazi eta sustatzea; berrikuntza, lehiakortasun jasangarria eta trantsizio digital nahiz berdea bultzatzea; eta bikaintasun-zentroen sarea babestea.

- Interesdunaren eskubideak:

Honako hauetarako eskubideak balia ditzake tratamenduaren arduradunaren aurrean: datuak atzitu, zuzendu, oposatu, ezabatu, tratamendua mugatu eta erabaki indibidual automatizatuen helburu ez izan. Horretarako, idazki bat bidal dezake Lege Aholkularitza, Informazioaren Segurtasuna eta Datu Babesa Bideratzeko Atalari, bitarteko hauen bidez aurkeztuta:

-BFAren egoitza elektronikoa: https://www.ebizkaia.eus

-Herritarrentzako BFAren aurrez aurreko arreta-bulegoak: https://web.bizkaia.eus/eu/erregistro-puntua

39/2015 Legean ezarritako gainerako lekuak: LOPD.sustapena@bizkaia.eus

- Datuen babesari buruzko informazio gehiago:

www.bizkaia.eus/tje-ekonomiasustatzekoekintzak

innovación abierta, consolidar un ecosistema de financiación atractivo, atraer e impulsar el talento, visibilizar y potenciar el papel de la mujer en la empresa , la ciencia y la tecnología, fomentar la innovación y competitividad sostenible así como su transición digital y verde y apoyar le red de centros de excelencia

- Derechos de la persona interesada:

Podrá ejercer ante el/la responsable del tratamiento sus derechos de acceso, rectificación, oposición, supresión, limitación del tratamiento y no ser objeto de decisiones individuales automatizadas, mediante escrito dirigido a la Sección de Asesoramiento Jurídico, Seguridad de la Información y Protección de Datos, que puede presentarse en:

-Sede electrónica de la DFB: https://www.ebizkaia.eus

-Oficinas de Atención presencial de la DFB: https://web.bizkaia.eus/es/puntos-de-registro

Resto de lugares previstos en la Ley 39/2015: LOPD.sustapena@bizkaia.eus

- Más información en protección de datos:

www.bizkaia.eus/rat-accionespromoeconomica

## Hamahirugarrena.- Arau-hausteak eta zehapenak

1. Arau-hausteen eta zehapenen araubidea 5/2005 Foru Arauaren IV. Tituluan eta 34/2010 Foru Dekretuaren IV. tituluan xedatzen dena izango da.

## Decimotercera.- Infracciones y sanciones

1. El régimen de infracciones y sanciones será el dispuesto en el Título IV de la Norma Foral 5/2005 y en el Título IV del Decreto Foral 34/2010.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 9MRU-OR2F-TTX3-YY8Y
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

2. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean eta Euskal Administrazio Publikoen Zigortzeko Ahalmenari buruzko martxoaren 16ko 1/2023 Legean aurreikusitakoa aplikatuko da, aurrekoen aurka ez doan guztian.

2. Será de aplicación lo previsto en la Ley 39/2015, de 1 de octubre del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, en la Ley 40/2015, de 1 de octubre de Régimen Jurídico del Sector Público y en la Ley 1/2023, de 16 de marzo, de la potestad sancionadora de las Administraciones Públicas Vascas, en lo que no se oponga a las anteriores.

Hamalaugarrena.- Helburu bera duten beste dirulaguntzak, diru-sarrera edo baliabide batzuekiko bateragarritasuna eta bateraezintasuna

1. Dirulaguntza hau bateragarria izango da helburu bera duten beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin, edozein administrazio edo erakunde publiko edo pribaturenak izan, nazionalak, Europar Batasunekoak edo nazioarteko erakundeetakoak izan, dirulaguntza edo laguntza horiei buruzko arauek ezarritakoa ezertan eragotzi gabe.

2. Hala ere, ez dira bateragarriak izango Bizkaiko Foru Aldundiak helburu bererako emandako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin.

3. Dirulaguntzei buruzko 5/2005 Foru Arauaren 18.3. artikuluak ezarritakoari jarraiki, emandako dirulaguntzaren zenbatekoa, bera bakarrik edo beste dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuekin batera, ezin da izan inola ere dirulaguntza jasotzen duen jarduerarren kostua baino gehiago.

4. Aurreko muga horietakoren bat gaindituz gero, emandako edo eman beharreko dirulaguntzari soberakinari dagokion kopurua kenduko zaio.

5. Dirulaguntzaren erakunde onuradunak Ekonomia Sustapen Sailari jakinarazi beharko dio, jakin bezain laster eta, nolanahi ere, funtsei emandako erabilera justifikatu aurretik, diruz

Decimocuarta. - Compatibilidad o incompatibilidad con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad

1. Esta subvención será compatible con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera administraciones o entes públicos o privados, nacionales, de la Unión Europea o de organismos internacionales, sin perjuicio de lo que pudiera establecer la normativa reguladora de dichas subvenciones o ayudas.

2. No obstante, no serán compatibles con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad concedidas por la Diputación Foral de Bizkaia.

3. Conforme al artículo 18.3 de la Norma Foral 5/2005, el importe de la subvención concedida en ningún caso podrá ser de tal cuantía que, aisladamente o en concurrencia con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos, supere el coste de la actividad subvencionada.

4. En caso de superarse alguno de los límites anteriores la subvención a conceder o concedida se minorará en la cantidad que corresponda al exceso.

5. La entidad beneficiaria de la subvención deberá comunicar al Departamento de Promoción Económica, tan pronto como se conozca y, en todo caso, con anterioridad a la

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 9MRU-OR2F-TTX3-YY8Y
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

lagundutako jarduerak finantzatzeko beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk lortu direla, eta, hala badagokio, egindako itzulketa-gutunaren kopia ere aurkeztu beharko du. Hori guztia 5/2005 Foru Arauaren 18.3 eta 4.artikuluetan aurreikusitako ondorioetarako, dirulaguntza emateko ebazpena aldatu ahal izateko eta, hala badagokio, itzulketa-prozedura hasteko.

justificación de la aplicación dada a los fondos, la obtención de otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos que financien las actividades subvencionadas, acompañando copia de la carta de reintegro que, en su caso, hubiera realizado. Todo ello a los efectos previsto en el artículo 18.3 y 18.4 de la Norma Foral 5/2005, de manera que pueda modificarse la resolución de la concesión de la subvención y, en su caso, iniciar el correspondiente procedimiento de reintegro.

6. Ekonomia Sustatzeko Saileko organo eskuduna gainerako alderdi finantzatzaileekin harremanetan jarri ahal izango da, baterako finantzaketarako akordio batera iristeko.

6. El órgano competente del Departamento de Promoción Económica podrá contactar con el resto de las partes financiadoras para llegar a un acuerdo de cofinanciación.

Hamabosgarrena.- Izaera eta araubide juridikoa

Decimoquinta.- Naturaleza y régimen jurídico

1. Hitzarmen honek administrazio izaera du, eta bertan xedaturikoaz gain, hauexek dira aplikagarriak: Foru Administrazioak emandako dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Araua eta dirulaguntzen 5/2005 Foru Araua garatzeko Dirulaguntzen Arautegia onetsi duen martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretua zein aldatu baitzen Bizkaiko Foru Aldundiaren otsailaren 27ko 16/2018 Foru dekretuaren bidez, zeinen bitartez onartzen baita klausula sozialak, ingurumenekoak eta beste politika publiko batzuei buruzkoak txertatzeko gida eta gainerako erregelamendu- xedapenak.

1. Este convenio tiene naturaleza administrativa y se regirá, además de por lo dispuesto en el mismo, por la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral y por el Decreto Foral 34/2010, de 23 de marzo, por el que se aprueba el Reglamento de Subvenciones, modificado por el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 16/2018, de 27 de febrero, por el que se aprueba la guía para la inclusión de cláusulas sociales, medioambientales y relativas a otras políticas públicas y demás disposiciones reglamentarias.

2. Aurreko arauetan aurreikusi ez den guztirako, hauexek aplikatu beharko dira: 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoena, 169/2014 Aurrekontuei buruzko Araudi orokorra, eta zuzenean edo analogiaz aplikatu beharreko administrazio edo substantibo zuzenbideko beste edozein arau.

2. Para todo lo no previsto en las anteriores normas, será de aplicación la Ley 40/2015, de régimen jurídico del Sector Público, el texto refundido del Reglamento Foral Presupuestario 169/2014, así como cualquier otra norma de derecho administrativo o sustantivo que directa o por analogía pueda resultar de aplicación.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 9MRU-OR2F-TTX3-YY8Y
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

3. Hitzarmen honen interpretazioa, ondoreak, ebazpena eta behar bezalako betetzea direla eta sor daitezkeen eztabaida guztiak Bizkaiko Foru Aldundiak ebatziko ditu administrazio bidean hark emandako ebazpenak berehala betearaztekoak izango direlarik.

3. Corresponderá a la Diputación Foral de Bizkaia resolver en vía administrativa cuantas controversias se susciten en relación con la interpretación, efectos, resolución y cumplimiento del presente convenio, cuyas resoluciones serán inmediatamente ejecutivas.

4.Hitzarmen honen ondoriozko auziak, horien izaera juridiko administratiboa dela-eta, administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren mende jarriko dira, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean xedatutakoarekin bat etorriz.

4. Las cuestiones litigiosas que pudieran derivarse del presente convenio, dada su naturaleza jurídico-administrativa, serán sometidas al orden jurisdiccional contencioso-administrativo, conforme lo dispuesto en la Ley 29/1998, de 13 de julio, Reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa.

## Hamaseigarrena.- Emandako dirulaguntzen publizitatea

1. Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 20.artikuluan xedatutakoa beteko da. Horretarako, Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean emandako dirulaguntza argitaratuko da artikulu horretan xedatutakoaren arabera.

2. Halaber, dirulaguntza eman den urte naturala amaitu ondorengo lehen hiruhilekoa amaitu baino lehen Ekonomia Sustatzeko Sailak Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko ditu emandako dirulaguntza, honako hauek adierazita: deialdia, aurrekontuko zer programari eta kredituri egozten zaizkion, onuradunaren izena edo sozietate izena eta haren identifikazio fiskaleko zenbakia eta emandako zenbatekoa, dirulaguntzaren helburura edo helburuak. Urte askotarako dirulaguntzen kasuan, emandako zenbateko osoa eta urtekoen banaketa.

## Decimosexta.-Publicidad de las subvenciones concedidas

1. Se dará cumplimiento a lo dispuesto en el artículo 20 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones mediante la publicación de la subvención concedida en la Base de Datos Nacional de Subvenciones según lo dispuesto en el citado artículo.

2. Así mismo, antes del fin del primer trimestre posterior al vencimiento del año natural de concesión de la subvención, el Departamento de Promoción Económica publicará en el Boletín Oficial de Bizkaia la subvención concedida, el programa y crédito presupuestario al que se imputen, nombre o razón social de la persona beneficiaria con su número de identificación fiscal, cantidad concedida y finalidad o finalidades de la subvención. En caso de subvenciones plurianuales, importe total concedido y distribución de anualidades.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 9MRU-OR2F-TTX3-YY8Y
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Hamazazpigarrena .- Organo eskudunak

Espedientea Ekonomia Sustatzeko Saileko Ekintzailetza, Talentu eta Enpresa Lehiakortasuneko Zuzendaritza Nagusiko Enpresa Sustatzeko Zerbitzuak antolatu eta bideratuko du.

Decimoséptima.- Órganos competentes

La ordenación e instrucción del expediente se llevará a cabo por el Servicio de Promoción Empresarial de la Dirección General de Emprendimiento, Talento y Competitividad Empresarial del Departamento de Promoción Económica.

Eta horrela jaso dadin eta bidezko ondorioak izan ditzan, alderdiek hitzarmen hau sinatu dute.

Y, para que conste y surta los efectos oportunos donde proceda, las partes firman el presente convenio.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 9MRU-OR2F-TTX3-YY8Y
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus